

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 518/2019 Erabakia, abuztuaren 2koa. Carlos Fernández de Betoño Hernández Arabako Lurralde Historikoaren foru sektore publikoko datuak babesteko ordezkari izendatzea

Datuak Babesteko Europako Erregelamendu Orokorrak (2016/679 Erregelamendua, apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazioari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa) 37.1 artikuluan xedatzen du ezen, datu pertsonalen tratamendua aginte edo organismo publiko batek egiten duen guztietan, datuak babesteko ordezkari bat izendatu beharra dagoela.

Beste alde batetik, erregelamendu horrek 37.3 artikuluan xedatzen du tratamenduaren arduraduna edo erantzulea agintaritza edo organismo publiko bat baldin bada, datuak babesteko ordezkari bakarra izendatu ahal izango dela agintaritza edo organismo horietako bat baino gehiagotarako, haien antolaketa egitura eta tamaina kontuan izanik.

Ildo beretik, datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak 34. artikuluan eta hurrengoetan ezartzen du datuak babesteko ordezkari bat izendatu beharra.

Foru Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 3ko 287/2019 Erabakiaren bidez, datuak babesteko ordezkariaren eginkizunak aldi baterako esleitu zitzaizkion Diputatu Nagusiaren Kabinetearen Zuzendaritzako Idazkaritza Teknikoko eta Herritarrak Atenditzeko Zerbitzuaren buruari, harik eta lanpostu zerrendaren barruan eginkizun horiek esleituta zituen lanpostu berri bat bete arte Diputatu Nagusiaren Sailean.

Carlos Fernández de Betoño Hernández zerbitzu eginkizunetan atxiki zaio Diputatu Nagusiaren Saileko datuak babesteko teknikari lanpostuari (kodea: 1371.001) eta, beraz, datuak babesteko beste ordezkari bat izendatu behar da.

Horregatik, diputatu nagusiak proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bileran gaia aztertu ondoren, hauxe

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Carlos Fernández de Betoño Hernández Arabako Lurralde Historikoaren foru sektore publikoko datuak babesteko ordezkari izendatzea.

Bigarrena. Datuak babesteko ordezkari bezala bete beharreko eginkizunak hauek izango dira:

1. Tratamenduaren arduradun edo erantzuleei eta Arabako Lurralde Historikoaren sektore publikoa osatzen duten erakundeetako langileei informazioa eta aholkuak ematea datuen babesaren arloan aplikatzekoa den araudiaren ondorioz dagozkien eginbeharrez.

2. Ikuskatzea datuen babesari buruzko araudian xedatutakoa betetzen den, eta tratamenduaren arduradun edo erantzulearen politikak datu pertsonalen babesaren gaian, barnean daudela arduren esleipena, tratamendu lanetan parte hartzen duten langileen kontzientziazioa eta prestakuntza eta dagozkion auditoretzak.

3. Eskatzen zaion aholkularitza ematea datuen babesarekin loturiko inpaktu ebaluazioaz, eta horren aplikazioa ikuskatzea.

4. Kontrol agintaritzarekin elkarlanean aritzea.

5. Kontrol agintaritzaren kontaktu puntu bezala jardutea tratamenduarekin loturiko kontuetarako, barnean dagoela aplikatzekoa den araudian aurreikusten den alde aurreko kontsulta, eta beste edozein gairen inguruko kontsultak egitea, hala badagokio.

6. Datuen babesaren arloko ordenamendu juridikoak ordezkariarentzat aurreikusitako gainerako eginkizun guztiak betetzea.

Hirugarrena. Erabaki honek 2019ko irailaren 2tik aurrera izango ditu ondorioak, ALHAOn noiz argitaratu gorabehera.

Laugarrena. Bat etorritzat Datuak Babesteko Europako Erregelamendu Orokorrak 37.7 artikuluan araututakoarekin eta datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak 34.3 artikuluan xedatutakoarekin, argitara emango dira datuak babesteko ordezkariaren beharrezko datuak, berarekin harremanetan jarri ahal izateko, eta haien berri emango zaio kontrol agintaritzari.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko abuztuaren 2a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Diputatu Nagusiaren Kabinetearen jarduneko zuzendaria

P. A. ELENA FERREIRA SEBASTIÁN